## DIRU ITURRIAK

Gure enpresaren diru iturri nagusiak, harpidetza- iturriak izango dira. Gainera, ordainketa errepikariak dira. Hauek, behin enpresa abian jarrita, gure diru- sarreren %100a izango dira. Aurreko puntuan aipatu dugun moduan, elkarte bat sortuz gero, elkarte honetatik lortutako komisioa %15 izango zen eta harpidetza- iturriak %85ekoak. Bezero bakoitzak ordaindu beharreko hilabeteko kuota 12.50 €koa da, urtero guztira 250€ ordainduz.

Enpresak berak inbertsio handia beharko lukeenez, Eusko Jaurlaritzak (SPRI), guztira 30.000€ko laguntza ematen du baldintza guztiak betez gero, eta Oñatiko Udalak ematen dituzten 900€ko diru- laguntzekin baliatuko ginateke gure proiektua aurrera ateratzeko. Horretaz gain, gure aurrezki propioak erabiliko genituzke inbertsioa gisa. Honekin guztiarekin nahikoa izango ez balitz, mailegu bat eskatu beharko genioke bankuari.